4. artikulua.- Epaimahai teknikoak, lehenbizi, eta ETxF-k araudia aldatzeko eta haren aplikaziotik eta/edo interpretaziotik eratorritako egoerak eta ezohiko kasuak ebazteko eskubidea du, proba bakoitzeko jarduera-eremuari dagokionez.

MODALITATEAK

5. artikulua.- Euskadiko BTT Open txapelketak modalitate hauetan banatzen dira:

- **EUSKADI BTT OPEN TXAPELKETA – XCO:** Cross-Country, zirkuitu olinpiko batean (gutxienez 4 km eta gehienez 6 km)
- **EUSKADI BTT OPEN TXAPELKETA – XCM:** Cross-Country distantzia luzeetan (gutxienez 60 km.)
- **EUSKADI BTT OPEN TXAPELKETA – DH:** jaitsiera, banakako proba kronometratuta, gutxienez 1,5 km eta gehienez 3,5 km dituen ibilbidean.

KATEGORIAK

6. artikulua

Parte hartzaileen adinak mugatzen dira lasterketa burutzen den urtea eta lasterkariaren jaiotze urtearen arteko aldearen bidez.

Euskadiko BTT Open txapelketak kategorian hauetan banatzen dira:

6.1. Olinpikoa (XCO) eta Jaitsiera (DH)

➤ Gizonak:

- Kadete: 15 edo 16 urteko txirrindulariak
- Junior: 17 edo 18 urteko txirrindulariak
- 23 urtez azpikoak: 19tik 22 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne
- Elite: 'Elite' kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
- Master 30: "Master 30" kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
- Master 40, 50 edo 60: "Master 40, 50 edo 60" kategoriako lizentzia duten txirrindulariak

➤ Emakumeak:

- Open (Scratch): 15 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak
- Kadete: 15 edo 16 urteko txirrindulariak



6.2. Maratoia (XCM)

- Gizonak: 19 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak
- Emakumeak (kategoria absolutua): 19 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak

EGUTEGIA

7. artikulua.- ETxF-ren Batzorde Teknikoak hautatuko ditu Euskadiko BTT Open txapelketen egutegia osatzen duten probak, Baldintzen Plegua betetzen duten eskaerak aztertu ondoren.

8. artikulua.- Araudi honen 5. artikuluan agertzen den lehiaketa bakoitzean, ETxF-ren 2013ko BTT egutegian inskribatutako probak independenteki puntuatuko dira, baldin eta proba gisa jasota badaude Euskadiko BTT Open txapelketa hauetan: Cross-Country Zirkuitu Olinpikoa (XCO), Cross-Country Maratoia (XCM), eta Jaitsiera (DH).

9. artikulua.- Klub antolatzaileek beren Lurralde Federazioen bitartez datak proposatuko dizkiote ETxF-ri, Ohiko Batzarra egin aurretik. ETxF-k prestatuko du behin betiko egutegia.

10. artikulua.- Justifikatu gabeko arrazoiengatik proba eteten bada, klub antolatzaileak data eta kategoria horretarako lehentasuna galduko du hurrengo urteetan.

PARTE HARTZEA

11. artikulua.- Nazioarteko Txirrindularitza Batasunean kide tutako federazio batek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulariek Euskadiko BTT Open egutegian jasotako probetan parte har dezakete, eta, ondorioz, Euskadiko BTT Open txapelketetan sailkatu daitezke.

Edonola ere, txirrindulari parte-hartzaileak Araudi honi men egin beharko dio.

LASTERKETA BAKOITZEAN IZENA EMATEA

12. artikulua.- Euskadiko BTT Open egutegiko probetako inskripzioa formalizatzeko epea proba hasi baino 1:30 lehenago irekitzen da, eta irteera-ordua baino 45 minutu lehenago amaitu.

Edonola ere, komenigarria da proba baino 48 ordu lehenago aurre-inskripzioa egitea, ETxF-ren bitartez.

13. artikulua.- Parte-hartzaileei ez zaie ezer ez kobratuko Euskadiko BTT Open egutegiko probetan izena emateagatik, DHn ezik.

Izena ematerakoan, ekipo bakoitzak talde-burua izendatuko du. Hark federazio-lizentzia indarrean izan beharko du, eta taldearen inskripzioan agertu. Halaber, kirol-zuzendariaren funtzioak, eskumenak eta erantzukizunak beteko ditu, dagozkion ondorio guztietarako.

TXIRRINDULARIAK IDENTIFIKATZEA – ZENBAKIAK ETA PLAKAK

14. artikulua.- Txirrindulari bakoitzari ETxF-ren identifikazio-zenbaki bat esleitu eta emango zaio (zenbakia eta plaka), proban lehen aldiz inskribatzen denean, eta zenbaki bera erabiliko du 2013ko Euskadiko BTT Open egutegiko proba guztietan.

Cross-Country Maratoia (XCM) eta Olinpikoa (XCO) modalitateetan, txirrindulariei identifikazio-zenbaki bera esleituko zaie.

Zenbakia edo plakaren galtzen bada edo egoera txarrean badago, txirrindulariak ordainduko du, eta 10 euroko kostua izango du.



BIZIKLETAK MARKATZEA

15. artikulua.- Koadroaren plakak bizikletaren marka izango da Euskadiko BTT Open egutegiko proba guztietan.

JANTZIAK

16. artikulua.- Txirrindulari orok bere lizentziako publizitatearen arabera jantzi beharko du.

Debekatuta dago kasko gainean bideokamerak edo antzekoak jartzea, eranstea edo muntatzea.

Jaitsiera (DH). Nahitaezkoa da babes-neurri hauek eramatea: osoko kaskoa biserakin, eskularruak, bizkarreko eta belaueneko babesak, eta betaurrekoak erabiltzea. Horrez gain, komenigarria da muskulu gainean betegarria eramatea eta bularreko, sorbaldako eta ukondoko babesak.

Debekatuta dago likrazko jantzi estuak erabiltzea (zuntz sintetikoa, elasthan, spandex).

LIDERRAREN MAILLOTA DARAMATEN TXIRRINDULARIAK

16 Bis artikulua.- Sailkapen orokor indibidualeko liderrari dagokion maillota emango zaio probaren amaieran, eta jantzita eraman beharko du.

A. EUSKADIKO BTT OPEN – XCO

- OPEN txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra (Elite eta 23 urtez azpikoak)
- 23 URTEZ APIKOEN sailkapen orokor indibidualeko liderra (*)
- EMAKUMEEN OPEN txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra (kategoria absolutua)
- JUNIOR sailkapen orokor indibidualeko liderra
- KADETE gizonetzko sailkapen orokor indibidualeko liderra
- KADETE emakumezko sailkapen orokor indibidualeko liderra
- MASTER 30 sailkapen orokor indibidualeko liderra
- MASTER 40 edo gehiagoko sailkapen orokor indibidualeko liderra

(*) OPEN txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra 23 urtez azpikoa bada, OPEN kategoriari dagokion maillota eramango du jantzita. Kasu horretan, inork ezingo du eraman 23 urtez azpikoen kategoriako liderraren maillota.

B. EUSKADIKO BTT OPEN – XCM

- ELITE kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- 23 URTEZ AZPIKOEN kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- MASTER 30 kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- MASTER 40 edo gehiagoko kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- EMAKUMEEN sailkapen orokor indibidualeko liderra

C. EUSKADIKO BTT OPEN – DH

- ELITE sailkapen orokor indibidualeko liderra
- 23 URTEZ APIKOEN sailkapen orokor indibidualeko liderra
- EMAKUMEEN OPEN txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra (kategoria absolutua)
- JUNIOR sailkapen orokor indibidualeko liderra
- KADETE sailkapen orokor indibidualeko liderra
- MASTER 30 sailkapen orokor indibidualeko liderra
- MASTER 40 edo gehiagoko sailkapen orokor indibidualeko liderra

ERREKLAMAZIOAK

17. artikulua.- Epaimahai teknikoak lasterketaren inguruan hartutako erabakiei ezin zaie errekurtsorik jarri, zigorrak 120 €-tik gorakoak direnean izan ezik.

Kaltetutako txirrindulariak edo akreditatutako talde-buruak bakarrik egin ditzakete erreklamazioak. ETxF-ren aurrean jarriko dira epaimahai teknikoak ezarritako sailkapenen eta/edo zigorren kontrako erreklamazioak, 72 orduko epean proba egiten denetik.



PROBA BAKOITZEKO SARIAK

18. artikulua.- Izatekotan, tokiko antolatzaileak lehiaketaren egunean ordainduko dizkie sariak txirrindulariei.

Antolatzaile bakoitzak zehaztatuko du bere probaren Sari-Zerrenda; eta era berean, Euskadiko BTT Txapelketetan.

Kategoria bateko parte-hartzaile kopurua ez bada sari-kopuruaren $\frac{3}{4}$ iristen, sarien zenbatekoak %50 murriztuko dira.

2018.02.18

EUSKADIKO BTT OPEN TXAPELKETAN SAILKAPEN OROKOR INDIBIDUALAK

19. artikulua.- Modalitate bakoitzean (XCO, XCM edo DH), Sailkapen Orokor bat ezarriko da kategorian bakoitzean. Sailkapena ezartzeko, txirrindulari bakoitzak proba guztietan eta Euskadiko txapelketetan lortu dituen puntuak batu dira, eta puntu gehien lortu dituenak izango du sailkapenik onena.

Berdinketarik balego, hori hausteko aintzat hartuko da zein txirrindularik lortu dituen lehen, bigarren eta hirugarren postu gehien, hurrenez hurren. Berdinketa mantentzen bada, azkeneko proban sailkapenik onena lortu duen txirrindulariak lortuko du lehen postua.

PROBA BAKOITZEKO PUNTUAZIO TAULA - EUSKADIKO OPEN TXAPELKETA ETA EUSKADIKO TXAPELKETA -

POSTUA	XCO – XCM - DH*
1	60 (20)
2	54 (15)
3	49 (13)
4	45 (11)
5	41 (10)
6	37 (9)
7	33 (8)
8	30 (7)
9	28 (6)
10	26 (5)
11	24
12	22
13	20
14	18
15	16
16	14
17	12
18	10
19	8
20	7
21	6
22	5
23	4
24	3
25	2

** Parentesi artean, Jaitsiera (DH) probetako lehenengo txandan (final aurrekoan) erantsi beharreko puntuak.*

Horrez aparte, proba kontrol-amaieraren epean barne amaitu duten txirrindulariek 2 puntu jasoko dituzte.



AMAIERAKO GARAIKURRAK

20. artikulua

G. EUSKADIKO OPEN SAILKAPEN OROKOR INDIBIDUALAK- XCO

Kadete (gizonak eta emakumeak), Junior, Elite, 23 urtez azpikoak, Open Emakumeak, Master 30 eta Master 40 (edo gehiago) kategorietako irabazle nagusiek garaikurra lortuko dute, ETxF-ren Batzar Nagusia egiten denean.

H. EUSKADIKO OPEN TALDEKAKO SAILKAPEN OROKORRAK - XCO

Garaikur bana emango zaie talde irabazle nagusiei, ETxF-ren Batzar Nagusian.

I. EUSKADIKO OPEN SAILKAPEN OROKOR INDIBIDUALAK - XCM

Gizonen kategorian, Banakako Sailkapen Orokor - Scratch bakarria ezarriko da, eta, bertan, batera agertuko dira gizonen kategoriako txirrindulariak (23 urte azpikoak, Elite, Master 30 eta Master 40 edo gehiago). Kategorია bakoitzeko lehenengo txirrindularia izango da kategoría horren garaile, eta bigarrena, berriz, txapeldunordea, eta horrela, ondoz ondo.

Garaikur bana emango zaie gizonen eta emakumeen kategoriako irabazle nagusiei, ETxF-ren Batzar Nagusian.

J. EUSKADIKO BTT OPEN TALDEKAKO SAILKAPEN OROKORRA - XCM

Garaikur bana emango zaie talde irabazle nagusie, ETxF-ren Batzar Nagusian.

K. EUSKADIKO OPEN SAILKAPEN OROKOR INDIBIDUALAK - DH

Kadete, Junior, Elite, 23 urtez azpikoak, emakumeak, Master 30 eta Master 40 (edo gehiago) kategorietako irabazle nagusiek garaikurra lortuko dute, ETxF-ren Batzar Nagusian.

L. EUSKADIKO OPENEAN PARTE HARTZEKO PIZGARRIAK - XCO

Parte hartzeko pizgarriak ETxF-k ekarriko ditu, eta kategoriaz banatuko dira irizpide hauen arabera:

➤ Gizonak:

- Kadete: proba guztietako gutxienez %80an parte hartu duten XCO Open Sailkapen Orokor Indibidualeko lehenengo hamar sailkatuetako txirrindulari bakoitzeko, bere klubak 100 € jasoko ditu.
- Junior: proba guztietako gutxienez %80an parte hartu duten XCO Open Sailkapen Orokor Indibidualeko lehenengo zortzi sailkatuetako txirrindulari bakoitzeko, bere klubak 100 € jasoko ditu.
- 23 urtez azpikoak: proba guztietako gutxienez %80an parte hartu duten XCO Open Sailkapen Orokor Indibidualeko lehenengo bost sailkatuetako txirrindulari bakoitzeko, bere klubak 100 € jasoko ditu.

➤ Emakumeak:

- Kadete, Junior, eta Elite: proba guztietako gutxienez %80an parte hartu duten XCO Open Sailkapen Orokor Indibidualeko lehenengo sailkatuetako txirrindulari bakoitzeko, bere klubak 100 € jasoko ditu.



EUSKADIKO BTT OPEN TXAPELKETA: OLINPIKOA (XCO) ETA MARATOIA (XCM)

PROBEN GARAPENA

21. artikulua

A. OLINPIKOA (XCO):

Kategoriak bereizita irtengo dira, lau minutuko tartearekin. Lehenik, OPEN kategoriako (Elite eta 23 urtez azpikoak) eta MASTER 30 kategoriako txirrindulariak irtengo dira, eta lau minutu beranduago, irteera egingo dute JUNIOR, OPEN EMAKUMEAK, MASTER 40 (edo gehiago) eta KADETEAK (gizonak eta emakumeak) kategoriek.

PROBA	GIRTEERA	KATEGORIAK	IRAUPENA	ZENBAKIAK
1 ^a	00H.00	ELITE 23 URTE AZPIKOAK MASTER 30	± 90' ± 75'	1-120 ZURIA 151-200 GORRIA 250-399 HORIA
2 ^a	00H.02	JUNIOR MASTER 40/50/60	± 60'	201-235 BERDEA 401-500 URDINA
3 ^a	00H.04	OPEN EMAKUMEAK KADETEAK (G y E)	± 60' ± 45'	501-550 FUKSIA 551-600 GRISA

Olinpiko (XCO) modalitateko proba guztiak 4 km eta 6 km arteko zirkuituan egingo dira.

B. MARATOIA (XCM)

Kategoria bakoitzekoak batera irtengo dira. Proba guztiak 60 km-ko distantzian egingo dira, gutxienez.

Euskadiko BTT Open – XCM txapelketako probetan, kategoria hauetako txirrindulariek parte har dezakete:

- **Gizonak:** Elite, 23 urtez azpikoak, Master 30, Master 40, Master 50 eta Master 60.
- **Emakumeak** (kategoria absolutua): Elite, Master 30, Master 40, Master 50 eta Master 60.

2017.12.24

LIDERRAREN MAILLOTA DARAMATEN TXIRRINDULARIAK

22. artikulua.- (16 Bis artikulura pasatzen da)

IRTEERA ORDENA

23. artikulua

C. EUSKADIKO BTT OPEN – XCO:

A.1. Egutegiko lehenengo proban: Aurreko urtearen Euskadiko BTT Open - XCOaren sailkapen orokor indibidualaren arabera.

00:00ean

1. OPEN (Elite eta 23 urtez azpikoak): Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak eta, gero, gainontzakoak;

2. MASTER 30: Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak eta, gero, gainontzakoak.

00:02ean

1. JUNIOR: Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak;

2. MASTER 40 (edo gehiagokoak): Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak.

3. Gainontzeko Juniorrak;

4. Gainontzeko Master 40 (edo gehiagokoak).



00:04ean

1. **OPEN EMAKUMEAK:** Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak;
2. **KADETEAK (gizonak):** Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak;
3. **KADETEAK (emakumeak): Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak;**
4. **Gainontzeko Kadeteak (gizonak eta emakumeak);**
5. **Gainontzeko Open Emakumeak.**

A.2. **Gainontzeko probak:** Urteko Euskadiko BTT Open – XCO sailkapen orokor indibidualen arabera.

00:00ean

1. **OPEN (Elite eta 23 urtez azpikoak):** Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak eta, gero gainontzekoak;
2. **MASTER 30: Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak eta, gero, gainontzekoak.**

00:02ean

1. **JUNIOR: Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak;**
2. **MASTER 40 (edo gehiagokoak):** Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak;
3. **Gainontzeko Juniorrak;**
4. **Gainontzeko Master 40 (edo gehiagokoak).**

00:04ean

1. **OPEN EMAKUMEAK:** Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak;
2. **KADETEAK (gizonak):** Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak;
3. **KADETEAK (emakumeak): Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamarrak;**
4. **Gainontzeko Kadeteak (gizonak eta emakumeak);**
5. **Gainontzeko Open Emakumeak.**

D. EUSKADIKO BTT OPEN – XCM

Irteera bakarra.

B.1. **Lehenengo proba:** Aurreko urtearen Euskadiko BTT Open - XCMaren sailkapen orokor indibidualaren arabera.

1. **GIZONAK:** Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamabostak – Scratch;
2. **EMAKUMEAK (kategoria absolutua):** Aurreko urtearen sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hiruak;
3. **Gainontzeko parte-hartzaileak**

B.2. **Gainontzeko probak:** Urteko Euskadiko BTT Open – XCM sailkapen orokor indibidualen arabera.

1. **GIZONAK:** Scratch - Sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hamabostak;
2. **EMAKUMEAK (kategoria absolutua):** sailkapen orokor indibidualeko lehenengo hiruak;
3. **MASTER 40 (edo gehiagokoak):** sailkapen orokor indibidualeko lehenengo bostak;
4. **Gainontzeko parte-hartzaileak.**

Antolatzaileak irteera neutralizatua ezar dezake. Kasu horretan, antolatzaileak epaimahai teknikoaren aginduetara egongo den ibilgailu bat izango du, eta taldearen aurrean joango da, irteera ofiziala eman aurretik.

Aitortutako kalitatea duten kanpoko txirrindulariek parte hartzen badute, parrillako lehenengo lerroan hartuko dute irteera, ETxF-ren ordezkararen eta probaren epaimahai teknikoaren akordioz.

2017.12.24

ZIRKUITUA PROBATZEA

24. **ARTIKULUA.-** Euskadiko BTT Open – XCO probetan, zirkuitua lehenengo probaren irteera baino 15' aurretik proba daiteke. Nahitaezkoa da entrenamenduan kaskoa eramatea.

HORNIDURA ZONA ETA ZONA TEKNIKOA - AKREDITAZIOA

25. **artikulua.-** ETxF-k urte guztirako baimen-txartelak banatuko ditu: ekipo bakoitzeko lau, eta txirrindulari bakoitzeko bi. Baimen-txartel horiek daramatzatenak bakarrik egon daitezke hornidura-zonetan eta zona teknikoetan.



Hornidurari eta laguntza teknikoari dagokionez, Mountain Bike probetarako Txirrindularitzaren Araudia beteko da (4.2.034 artikulutik 4.2.047 artikulura).

Ahal den heinean, txirrindulariek erabili eta botatzeko hornidura-elementuak (bidoiak, bilgarriak, poltsak...) horniduraz onaren barruan soilik botako dituzte. Bestela, arau-hausleari 10 puntuz zigortuko zaio sailkapen orokor indibidualean.

PROTOKOLOA

26. artikulua.- Proba amaituta, protokolo-zeremonia egingo da. Nahitaez bertaratu beharko dira Antolakuntzak euren partaidetzagatik edo sailkapenagatik deitzen dituen txirrindulariak.

Txirrindulariek lasterketa-jantziak eraman beharko dituzten protokolo-zeremoniara (maillota eta kulota).

Salbuesenez, eguraldi txarra egiten badu, txirrindulariek ekipoko txandala jantzi dezakete protokolo-zeremonian.

Arau hauek betetzen ez dituenari 5 euroko isuna jarriko zaio.

27. artikulua.- Protokolo-zeremonia guztietara joan behar duten parte-hartzaileak, proba bakoitzean:

A. EUSKADIKO BTT OPEN - XCO:

- Emakumeak:

- Kadete emakumeen probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- KADETE kategoriako sailkapen orokor indibidualeko liderra
- Emakumeen Open kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- EMAKUMEEN OPEN txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra

- Gizonak

- Master 40 (edo gehiagoko) kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Master 30 kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Kadete kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Junior kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Open (Elite eta 23 urtez azpikoak) txapelketako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- 23 urtez azpikoen kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- OPEN txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra (Elite eta 23 urtez azpikoak)
- 23 URTEZ AZPIKOEN sailkapen orokor indibidualeko liderra (**)
- JUNIOR kategoriako sailkapen orokor indibidualeko liderra
- KADETE kategoriako sailkapen orokor indibidualeko liderra
- MASTER 30 kategoriako sailkapen orokor indibidualeko liderra
- MASTER 40 edo gehiagoko kategoriaren sailkapen orokor indibidualeko liderra

B. EUSKADIKO BTT OPEN – XCM:

- Proban sailkatutako Open (Elite eta S23) kategoriako 1., 2. eta 3. sailkatuak
- Proban sailkatutako 23 urtez azpikoen kategoriako 1., 2. eta 3. sailkatuak (*)
- Master 40 (edo gehiagoko) kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Master 30 kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- Emakumeen kategoriako probetan 1., 2. eta 3. sailkatutakoak
- ELITE kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- 23 URTEZ AZPIKOEN kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- MASTER 30 kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- MASTER 40 edo gehiagoko kategoriako sailkapen orokor indibidualeko lehena - Scratch
- EMAKUMEEN sailkapen orokor indibidualeko liderra

(*) Scratch kategoriako probaren garailea 23 urtez azpiko txirrindularia bada, Scratch kategoriako irabazle absolututzat joango da zeremoniara. Kasu horretan, 23 urtez azpiko kategoriako 1. txirrindulariari dagokion protokolo-kapitulua ezabatuko da.

(**) Scratch txapelketako sailkapen orokor indibidualeko liderra 23 urtez azpikoa bada, Scratch kategoriako lidertzat joango da zeremoniara. Kasu horretan, 23 urtez azpikoen kategoriako liderrari dagokion protokolo-kapitulua ezabatuko da.



PROBA BAKOITZEKO SAILKAPENAK

28. artikulua

- C. EUSKADIKO BTT OPEN – XCO:** Denboren arabera Banakako Sailkapena ezarriko da kategoriatan: KADETEAK (gizonak eta emakumeak), JUNIOR, OPEN (Elite eta 23 urtez azpikoak), OPEN EMAKUMEAK, MASTER 30 eta MARTES 40 (edo gehiagokoak).

Horrez aparte, Scratch – Denboren arabera sailkapen indibiduala ezarriko da bertan 23 urtez azpiko eta Elite gizonen kategoriatan era batera agertuko direlarik.

Kategoria bateko lehenengo txirrindulariak kategoriatan bereko txirrindulari bat doblatzen badu, doblatutako txirrindulariak itzulia amaitu eta lasterketa utzi beharko du helmugara iristean (lehenengo lasterketan “kategoria berekotzat” izango dira Elite eta 23 urtez azpikoak). Iriste-ordenaren arabera sailkatuko dira, eta atzerapen-itzuliak metatuko zaizkie (4.2.060. artikulua).

- D. EUSKADIKO BTT OPEN – XCM:** Gizonen kategorian, Denboren arabera Banakako Sailkapen - Scratch bakarria ezarriko da, eta batera agertuko dira gizonen kategoriatan txirrindulariak (23 urtez azpikoak, Elite, Master 30 eta Master 40 edo gehiago). Kategoria bakoitzeko lehenengo txirrindularia izango da garailea, eta bigarrena, berriz, txapeldunordea, eta, horrela, ondoz ondo.

Kategoria bateko irabazlea iristen denetik kontrola itxi arte doan denbora gaintzen duten kategoriatan horretako txirrindulariak ez dira sailkatuko.

PROBA BAKOITZEKO TALDEKAKO SAILKAPENAK

29. artikulua.-

- A. EUSKADIKO BTT OPEN – XCO:**

Taldeko bi sailkapen ezberdinak ezarriko dira proba bakoitzeko:

- **Kadete – Junior:** klub bereko lehenengo lau (2 Kadete + 2 Junior) txirrindulariek lortutako postuak batuko dira, eta puntu gutxien lortu dituen klubak izango da garaile.
- **23 urtez azpikoak – Elite:** talde bereko lehenengo hiru (23 urtez azpiko edota Elite) txirrindulariek Scratch sailkapenean lortutako postuak batuko dira, eta puntu gutxien lortu dituen taldea izango da garaile.

Talde bezala ulertzen da RFEC-ren BTT talde zerrendan agertzen dena.

Puntu-berdinketarik bago Kadete – Junior taldeko sailkapenean, Junior kategoriatan posturik onenak hautsiko du berdinketa; 23 urtez azpiko – Elite taldeko sailkapenean aldiz, Scratch sailkapenean lortutako posturik onena.

- B. EUSKADIKO OPEN – XCM:**

- Klubeko gizonetan 1., 2. eta 3. sailkatuak (edozein kategoriatan direla ere)

Puntu-berdinketarik bago, Elite kategoriatan posturik onenak hautsiko du berdinketa.

TALDEKAKO SAILKAPEN OROKORRA

30. artikulua.- Bi Sailkapen Orokor ezarriko dira: Kadete – Junior, eta 23 urtez azpikoak – Elite. Araudi honen 29. artikuluan jasotakoari jarraiki, klub (Kadete - Junior), edo talde (23 urtez azpikoak - Elite), bakoitzak proba guztietan eta Euskadiko Txapelketetan lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gutxien lortzen dituenak lortuko du sailkapenik onena.

Berdinketarik bago, azkeneko proban sailkapenik onena lortu duen klubak, edo taldeak, lortuko du lehen postua.



EUSKADIKO BTT OPEN TXAPELKETA: JAITSIERA (DH)

PROBEN GARAPENA

31. artikulua.- Euskadiko BTT Open – DH probetan txanda bakarrek moduz burutuko da Saillapena, hots, lehenengo txanda (final aurrekoa) baten ondorioz bigarren txandaren (finala) Irteera Ordena eratuko da.

Bakarrik bigarren txandan (finala) lortutako denborak balioko du amaierako Saillapenerako.

32. artikulua.- Araudi honen 6. artikuluan jasotako txirrindulari guztiek txanda bietan batera hartuko dute parte.

Hala ere, saillapen independenteak ezarriko dira, hau da, kategorია bakoitzeko bat.

33. artikulua.- Txirrindulariak minutu erdiko (30 segundo) tartearekin irtengo dira.

Txirrindulariak ezingo du irteera hartu esleitutako irteera-ordua baino beranduago agertzen bada.

Txanda bakoitzeko lehenengo txirrindulariari irteera eman ostean ibilbidean txirrindularirik balego, kanporatuak izan litezke.

IRTEERA ORDENA

34. artikulua.- Hau da kategoría bakoitzaren bi txandetako irteera-ordena: 1. Master 40-50-60, 2. Master 30, 3. Emakumeak, 4. Kadeteak, 5. Junior, 6. 23 urtez azpikoak eta 7. Elite.

35. artikulua.- Euskadiko BTT Open – DH txapelketako urteko lehenengo probaren lehenengo txandan, kategoría bakoitzerako irteera-ordena inskripzioaren alderantzizko ordenan izango da.

Gainerako probetan, kategoría bakoitzeko irteera-ordena Euskadiko BTT Open –DH txapelketako Saillapen Orokorren alderantzizkoa izango da.

36. artikulua.- Bigarren txandan, kategoría bakoitzaren irteera-ordena lehenengo txandaren Denboraren arabera saillapenaren alderantzizkoa izango da.

Lehenengo txandan denboren arteko berdinketarik balego, lehen irten den txirrindularia aurretik egongo da txanda horren saillapenean.

37. artikulua.- Edonola ere, epaimahai teknikoak araudi honetan ezarritako irteera-ordena aldatu ahal izango du, hala egoki baderitzo,.

SEGURTASUNA

38. artikulua.- Txirrindulari batek istripurik balu, hurrengo parte-hartzaileek arreta handiarekin ibili beharko dute.

Antolakuntzaren segurtasun-langileek banderatxo gorriak jarriko dituzte istripu-seinale gisa, eta txirrindulariak berehalakoan gelditu beharko dira.

Istripu-seinaleen ondorioz gelditu behar izan duten txirrindulariek irteera-zonara joan beharko dute lehenbailehen, eta irteera-epaileak eta kronometratzaileak irteera berria agindu arte itxaron.

LIDERRAREN MAILOTA DARAMATEN TXIRRINDULARIAK

39. artikulua.- (16 Bis artikulura pasatzen da)



EUSKADIKO MOUNTAIN BIKE TXAPELKETAK (BTT) - XCO, XCM, eta DH -

XEDAPEN OROKORRAK

40. artikulua.- EUSKADIKO BTT TXAPELKETAK (XCO, XCM eta DH), Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren (ETxF) jabetza eskusibokoak dira.

41. artikulua.- Kapitulu honetan jasotako xedapen bereziak salbu, lehiaketak Euskadiko BTT Open - XCO, XCM eta DH modalitateen araudien arabera gobernatuko dira.

42. artikulua.- Kategoria bakoitzerako Euskadiko BTT (XCO, XCM eta DH) txapeldunen tituluak eskusiboki erreserbatuta daude Euskadiko eta Nafarroako Federazioetako (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) lizentzia jaso duten txirrindularientzat, eta baita Espainiako edo Frantziako nazionalitatea duten Ipar Euskal Herriko txirrindularientzat ere (Nafarroa Beherea, Lapurdi eta/edo Zuberoa). Lizentzian jasotako helbidea hartuko da bizilekutzat.

Kategoria bakoitzean, gutxienez 3 (hiru) txirrindularik parte hartu beharko du. Kopurua ez bada betetzen, Euskadiko txapeldun titulua hutsik geratuko da.

Kadete eta Junior:

Lehen adierazitako lurralde-eremuan bizi diren gizonezko zein emakumezko txirrindulariek Euskadiko txapeldun titulua lor dezakete, nahiz eta Espainiako edo Frantziako nazionalitatez ez izan.

2013KO EUSKADIKO BTT TXAPELKETEN BANAKETA

43. artikulua 2013ko EUSKADIKO BTT TXAPELKETAK modalitate eta kategoria hauetan banatu dira:

43.1. Olinpikoa (XCO) eta Jaitsiera (DH)

- Gizonak:
 - Kadete: 15 edo 16 urteko txirrindulariak
 - Junior: 17 edo 18 urteko txirrindulariak
 - 23 urtez azpikoak: 19tik 22 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne
 - Elite: 'Elite' kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
 - Master 30: "Master 30" kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
 - Master 40, 50 edo 60: "Master 40, 50 edo 60" kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
- Emakumeak:
 - Open (Scratch): 15 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak
 - Kadete: 15 edo 16 urteko txirrindulariak

43.2. Maratoia (XCM)

- Gizonak:
 - 23 urtez azpikoak: 19tik 22 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne
 - Elite: 'Elite' kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
 - Master 30: "Master 30" kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
 - Master 40, 50 edo 60: "Master 40, 50 edo 60" kategoriako lizentzia duten txirrindulariak
- Emakumeak (kategoria absolutua): 19 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak

PARTE HARTZEA

44. artikulua.- EUSKADIKO BTT TXAPELKETETAN, 42. artikuluan jasotako txirrindulariez gain, Nazioarteko Txirrindularitza Batasunera kidetutako federazio batek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulariek parte har dezakete.

Segundo horiek agertuko dira probako sailkapenetan. Dena den, EZIN DUTE Euskadiko txapeldunaren titulua jaso.



SAILKAPENAK

45. artikulua.- Denboren araberako Banakako Sailkapena ezarriko da kategoria bakoitzean, Araudi honen 43. artikuluari jarraiki. Kategoria bakoitzeko sailkapenean, lehenengo postuan dagoen txirrindularia Euskadiko txapelduna izango da kategoria horretan.

AZKEN XEDAPENA

46. artikulua.- EUSKADIKO BTT TXAPELKETAK (XCO, XCM eta DH) puntuagarriak izango dira dagozkien Euskadiko BTT Open txapelketetan.